

193. araua

Artelanen izenak. Arkitektura

(Euskaltzaindiak 2021eko irailaren 24an onartua, Bilbon)

Munduko arkitekturako artelanak euskaraz izendatzeko irizpideak

Eraikuntza-lanak —monumentuak, eraikinak, eraikin-zatiak, ingeniaritza-eraikuntzak eta, oro har, izaera monumentaleko arkitektura-multzoak eta elementuak— beren izenez aipatzeko erabiltzen diren izendapenek **atal generiko** bat izaten dute, izen arrunt bat izan ohi dena (katedrala, antzokia, dorrea, jauregia, zubia, plaza...), eta izen generiko hori bere espezieko gainerakoetatik bereizten duen elementu bat, **atal espezifika**.

Atal espezifiko hori zenbait motatakoa izan daiteke:

1- Gehienetan, izen berezi bat izaten da, hala nola leku-izen bat (Londres, Florentzia...) pertsona-izen bat (Eiffel, Done Petri...), erakunde-izen bat (Nazio Batuak, Petronas...) edo izen berezitzat hartzekoa den izendapen bat (Jesusen Bihotza, Familia Santua...).

Halakoetan, atal espezifiko letra larriz hasita eta atal generikoa letra xehez hasita idatzi ohi dira. Adibideak:

Londresko dorrea, Florentziako katedrala, Kordobako meskita, Mont-Saint-Michelgo abadia, Versaillesko jauregia, Laterango jauregia, Pisako dorrea, Louvreko kolomadria, Balmoral gaztelua, Schönbrunn jauregia; Sydneyko opera.

Eiffel dorrea, Barberini jauregia, Done Petri(ren) basilika, Selimen meskita, San Joan(en) bataiotegia, San Karlos Borromeo(ren) eliza.

Nazio Batuen egoitza, Petronas dorreak, Fagus fabrika, Chrysler eraikina.

Jesusen Bihotzaren basilika, Familia Santuaren basilika.

Atal espezifikoak, batzuetan, badu adjektiboren bat ere izen berezia kalifikatzen duena. Adjektibo hori ere letra larriz hasita idazten da. Adibideak:

San Apolinar Berriaren basilika, Done Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika, Andre Maria Nagusiaren basilika, Mekako Meskita Handia, Txinako Harresi Handia.

Ohartzekoa da atal espezifikoak izen generikoaz gainera adjektiboren bat duenean artelanaren izendapen espezifiko bihurtzen dela, eta, horregatik, letra larriz hasita idazten dela. Adibidez: Kordobako meskita, baina Mekako Meskita Handia.

2- Zenbaitetan, atal espezifikoak izen arrunt bat da, baina izen generikoak bere espezieko gainerakoetatik bereizteko balio duenez, izen bereziaren balioa du hartzen du izen arrunt horrek, eta letra larriz hasita idazten da. Adibideak:

Natibilitatearen basilika, Arrokaren kupula, Xaharen meskita, Dukearen jauregia, Aita Santuen jauregia, Zetaren lonja, Inozenteen ospitalea, Belvedere jauregia, Askatasunaren estatua, Erlajuaren dorrea, Lehoinen patioa.

Kasu horietako batzuetan, atal espezifikoak, izenaz gainera, beste osagairen bat ere izaten du, hala nola adjektiboren bat edo zenbatzailerentzat. Osagai horiek ere letra larriz hasita idazten dira, atal espezifikoaren parte baitira. Adibideak:

Jerusalemgo Gurutze Santuaren basilika, Hilobi Santuaren eliza, Maisu Handiaren jauregia, Hamalau Santuen basilika, Apirilaren 25eko zubia.

Eta atal espezifikoak atal generikoaren izen bera denean, generikoa desagertu ohi da (halakoetan, izen hori adjektibo batez lagunduta egoten da). Adibidez, Meskita Urdina, Etxe Zuria (eta ez Meskita Urdina meskita, Etxe Zuria etxea), Kapera Palatinoa, Biblioteka Laurentziana, Kapera Sistinoa, (Txinako) Harresi Handia.

Eraikin erlijiosoetako kasu bereziak

Eraikin erlijiosoetan, santuaren edo dena delakoaren izen berezia moldatu egin ohi da hizkuntza bakoitzean; hau da, santuen izenak hizkuntzatik hizkuntzara aldatzen diren bezala, ohikoa da santu horien izenekin osatutako arkitektura-lanetan ere izen horiek erabiltzea.

Santuaren izen berezia eta eraikinaren izen generikoa (eliza, basilika...) aposizioan joan ohi dira atal espezifikoak bakuna denean. Adibidez:

Done Petri basilika, San Vital basilika.

Dena dela, halaber joan liteke NOREN kasuan izen berezia, hala nola Done Petriren basilika edo San Vitalen eliza.

Eraikinaren izendapenaren atal espezifikoak konplexuagoa denean, izenlagun gisa lotu ohi zaio atal generikoari (NOREN kasuan). Adibidez:

San Apolinar Berriaren basilika, Hilobi Santuaren eliza, Andre Maria Nagusiaren basilika, Done Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika.

Era horretakoak, dena dela, aposizioan ere jarri ezinik ez dago, San Apolinar Berria basilika, Andre Maria Nagusia basilika, baina ohikoagoa da izenlaguna.

Hala ere, izen berezia konplexua denean, jatorrizkoan uztea ere ohikoa da. Bereziki aztertzekoak dira italierazko *in* hitza dutenak, esanahiak ez baita beti bera. Askotan, *in* hitz horrek eraikina non dagoen adierazten du, baina ez herria, baizik eta auzoa. Adibidez, basilica di Santa Maria in Trastevere Errromako Trastevere auzoko eliza bat

da. Halakoetan, ez dago arazorik Andre Maria Trasteverekoaren basilika izendatzeko (Adjektiboa izenlagun moduan ere joan daiteke, Trastevereko Andre Mariaren basilika, baina ondotik joatea ere ohikoa da; adibidez, santuak izendatzean: Kristo Lezokoa, San Ignazio Loiolakoa, San Antonio Paduakoa, San Frantzisko Saleskoa...). Izenaren ondotik joatea mesedegarria da, gainera, aurretik beste izenlagun bat dagoenean: Erromako Andre Maria Trasteverekoaren basilika.

Adibide gehiago:

San Apolinar Classe-koaren basilika (italieraz, basilica di Sant'Apollinare in Classe). Classe Italiako Ravenna hiriko toki baten izena da.

San Joan Laterangoaren basilika (italieraz, basilica di San Giovanni in Laterano). Lateran Erromako auzo baten izena da.

Badira, baina, bestelako kasu batzuk:

basilica di Santa Maria in Montesanto

Erromako eliza bat da, baina MonteSanto ez da Erromako auzo bat Lateran eta Trastevere diren bezala. Izen horren jatorria Siziliako Monte Santo probintzia da, toki horretako fraide karmeldarrek Erroman zuten eliza txiki baten ordez eraiki baitzen basilika.

basilica di Santa Maria in Cosmedin

Erromako eliza bat da, baina Cosmedin hitza grekozko κοσμίδιον (cosmidion) hitzetik dator (Κόσμας hitzetik, *Kosmas*, hau da, San Kosme), eliza Ama Birjinari eskainia baitzegoen eta Erromako komunitate grekoa bizi zen lekuan kokatuta baitzegoen.

San Pietro in Montorio

Erromako eliza bat da, eta Montorio izena Mons Aureus izendapenetik dator, hala deitzen baitzoten erromatarrek Janiculum izeneko mendixkari bere itxuragatik. Mendixka hori Erromako Trastevere auzoan dago.

Halakoetan eta antzekoetan, badirudi jatorrizkoa erabiltzea izan daitekeela irtenbiderik erosoa —beste hizkuntza batzuetan ere hala jokatzen da—, eta aposizioan erabiltzea:

Santa Maria in Montesanto basilika, Santa Maria in Cosmedin basilika, San Pietro in Montorio tenpletea.

Bestela, edozer dela ere, NONGO moduan erabil liteke:

Andre Maria Montesantokoaren basilika, Andre Maria Cosmedingoaren basilika, Done Petri Montoriokoaren tenpletea.

Beste batzuetan, eraikinak santuren baten izena du, eta eraikina kokatuta dagoen lekuaren izenak ere santu horren izena du. Halakoetan, zalantza egin liteke santuaren izena egokitu eta NORREN izenlaguna erabili edo lekuaren izena bere horretan hartu eta NONGO izenlaguna erabili. Adibidez, Frantzian, Saint-Denis izeneko herrian, basilique Saint-Denis izeneko eliza dago, izen hori San Dionisioren omenez hartua Spainian, Santo Domingo de Silos herrian, monasterio de Santo Domingo de Silos izeneko monasterioa dago, izen hori San Domingo Siloskoaren omenez hartua. Halakoetan, bi izendapen posible daude, baina garbi izanda desberdinak direla. Hau da:

- 1- (NOREN) San Domingo Siloskoaren monasterioa, Saint-Denis(en) basilika (monasterioaren eta basilikaren izena)
- 2- (NONGO) Santo Domingo de Silosko monasterioa, Saint-Denisko basilika (halako herriko monasterioa eta basilika).

Biak zuzenak izanik ere, lehena da monasterioa eta basilika izendatzeko berezko modua.

Spainian, Errioxako Autonomia Erkidegoan, monasterio de San Millán de la Cogolla izeneko monasterio bat dago San Millán de la Cogolla izeneko herrian. Herri horren euskarazko izena Donemiliaga Kukula da, Euskaltzaindiak hala arautua 2006an, *Euskal Herri inguruko exonimoak* arauan. Kasu horretan, Donemiliaga Kukulako monasterioaren euskarazko izena Donemiliaga da.

Nolanahi ere, atal espezifiko jatorrizko hizkuntzan uztea ohikoa da, euskaratzeko modukoa izanda ere. Adibidez, Florentziako katedrala bere izenez aipatzeko, Andre Maria del Fiore katedrala erabiltzea eta beste hainbeste Florentziako San Miniato al Monte basilika kasuan edo Parisko Notre-Dame katedrala kasuan; Andre Maria Lorearena katedrala, San Miniato Mendikoa basilika eta Andre(dena) Maria katedrala izenda litzke, edo Errromako San Carlo alle Quattro Fontane eliza San Karlos Lau Iturrietako euskaratu, baina ez dago horrelako tradizio sendorik, eta gure inguruko hizkuntzetan ere ikusten da batzuetan egokitzen dela eta beste batzuetan ez; ez dago arau edo joera finkorik.

Itzuli edo ez itzuli?

Zenbaitetan, monumentuaren izenak ez du osagai espezifikorik, ez du izen berezirik: izen generikoa, bera bakarrik edo adjektiboren batez lagundua, aski da izendapena osatzeko, edo, bestela, elkarketa bidez lotutako bi izen. Halakoetan, izen berezirik ez dagoenez, ez dago arazorik izenak itzultzeko. Hala ere, ez dago joera orokorrik; batzuetan, izendapenak egokitzen dira, baina beste batzuetan ez. Oro har, badirudi jatorrizko izendapena erabiltzea nagusitzen ari dela gure auzo-hizkuntzetan, batez ere arkitektura-lan edo monumentu berriean —are gehiago jatorrizko hizkuntza ingelesa denean—, baina salbuespen ugari dago.

Adibidez, Washingtongo Etxe Zuria itzultzen da (ingelesa: White House, gaztelania: Casa Blanca, frantsesa: Maison(-)Blanche), baina Brightongo Royal Pavilion, eskuarki, ez da itzultzen (“pabiloi erreala”). Eta Treviko iturria ohikoa bada ere, Fontana di Trevi jatorrizkoa ikustea ez da ezohikoa. Gisa berean, Sevillako Torre del Oro dorrea noiz edo noiz itzuli da (Urrezko dorrea), baina gehiagotan erabili da euskaraz itzuli gabe (urreko atalean aipatu den Parisko Notre-Dame eta gisakoetan gertatu ohi den moduan). Gertutasun kulturalak eta hizkuntza-gertutasunak ere badute eragina.

Batzuetan, izendapenaren parte espezifika itzultzen da; adibidez, Txileko Santiagoko Moneda jauregia (ez da “Txanpona” itzultzen), edo Kaliforniako San Frantziskoko Golden Gate zubia (ez da “Urrezko Atea” itzultzen). Beste batzuetan, parte generikoa ere ez da itzultzen; adibidez, AEBko Missouri estatuko Saint Louis hiriko Gateway Arch monumentuaren kasuan, Gateway (“pasabidea”) ez da itzultzen, baina Arch generikoa ere ez, askotan, nahiz eta Gateway arkua izendapena ere erabil daitekeen.

Zenbaitetan, eraikina erakunde baten egoitza da, eta, metonimiaz, izen bera erabiltzen da biak izendatzeko, eraikina eta erakundea. Halakoetan, ohikoagoa da jatorrizko izena uztea, beti hala izan ez bada ere.

Adibidez, Londresko British Museum eta National Gallery izendapenak ohikoak dira, gaur egun, gaztelaniaz eta frantsesez, baina XX. mendean ohikoak ziren Museo Británico eta Musée britannique eta Galería Nacional eta Galerie nationale itzulpenak. Ingelesak gure artean duen toki eta garrantzi gero eta handiagoak ere baduke eraginik jatorrizkoa ez itzultze horretan.

Arkitektura-lanaren izendapena itzultzen ez denean, ohikoa da jatorrizko izendapenaren hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idaztea. Adibidez:

Sevillako Torre del Oro dorrea; Erromako San Carlo alle Quattro Fontane eliza; Saint Louis hiriko Gateway Arch monumentua.

Generikorik gabeko erabilera

Arkitektura-lan oro izendapen formalean atal generiko batez eta atal espezifiko batez osatuta egon ohi bada ere, eraikin bat zenbat eta ezagunagoa izan edo gertukoagotzat jo, hainbat errazagoa da generikoa kentzea eta atal espezifikoa bakarrik erabiltzea. Eta beste hainbeste testuinguruak anbiquotasuna hausten duenean. Adibidez:

Erdogan Santa Sofian izan da. Santa Sofiara sartzeko ilarak. Santa Sofia barrutik ikusita.

Erromara joanez gero, Koliseoaz eta Vatikanoaz gainera, Done Paulo Harresiz Kanpokoa ikusi nahi nuke, baita katakonbak eta Andre Maria Nagusia ere.

Parisa turismoa egitera joatea eta Notre-Damera ez joatea barkaezina da.

Halakoetan, baldin eta atal espezifikoan adjektiboren bat badago, generikorik gabeko erabilera mugatuan erabiltzen da. Adibidez, Andre Maria Nagusiaren basilika ikustera

joan ginen forma osoa erabili beharrean, testuingurua jakina denean, Andre Maria **Nagusia** ikustera joan ginen esan daiteke (baina ez *Andre Maria **Nagusi** ikustera joan ginen).

Eta beste ezerekin ez nahasteko aukerarik ez dagoenean ere, hala jokatu ohi da: Taj Mahal nahikoa da, eta ez da behar Taj Mahal mausoleoa izendapen osoa.

Baina badira muga jakin eta logiko batzuk. Baldin eta atal espezifiko leku-izena bada, atal generikoa ezin da kendu. Adibidez, Laterango jauregia izendatzeko ezin da Lateran bakarrik erabili.

Erdal artikulurik gabeko erabilera

Eraikin batzuen jatorrizko izenen atal espezifikoak artikuludunak dira gaztelaniaz. Adibidez, el monasterio de **El Escorial**, el palacio de **la Moneda**, el parque **del Retiro**, el palacio de **la Zarzuela**, el palacio de **El Pardo**, el palacio de **la Moncloa**, el Museo **del Prado**. Artikulu horietako batzuk leku-izenaren parte bereizezina dira, hala nola el monasterio de **El Escorial** eta el palacio de **El Pardo**, eta letra larriz hasita idazten dira (eta ez da *del* kontrakzioa idazten). Gainerakoetan, berriaz, artikulua ez da izen bereziaren parte, eta esaldian txertatzeko bakarrik erabiltzen da. Halakoetan, artikulua ez da idazten letra larriz hasita: el palacio de **la Moneda**, el parque **del Retiro**, el palacio de **la Zarzuela**, el palacio de **la Moncloa**, el Museo **del Prado**. Halako adierazpen izendatzaleetan, ohikoa da generikoa ez erabiltzea, jakintzat hartzen baita: El Escorial, la Moneda, el Retiro, la Zarzuela, El Pardo, la Moncloa, el Prado. Antzera gertatzen da frantssez ere; adibidez, le palais de l'Élysée kasuan, l'Élysée esaten da modu laburtuan, edo, le musée **du Louvre** kasuan, le Louvre.

Halakoak euskaraz aipatzean, kontuan hartzekoa da bereizketa: batetik, El Escorialgo monasterioa eta El Pardoko jauregia (El Escorial izeneko lekuan dagoen monasterioa eta El Pardo izeneko lekuan dagoen jauregia); bestetik, Moneda jauregia, Retiro parkea, Zarzuela jauregia, Moncloa jauregia. Generikorik gabe erabiltzen direnean, bereizketa hori kontuan hartu behar litzateke (batetik, El Escorialera joan ginen, El Pardo bisitatzen joango dira; bestetik, Moncloara joango da, Zarzuela bisitatzen joan ziren, Retiron paseatzen ibili ziren, bi presidenteak Monedan bildu ziren, Santiagon; aliantza horiek burrunba sortu dute Eliseoan, Louvrek ibilbide birtualak eskaintzen ditu bere webgunean).

Arkitekturako zenbait lan ezagun

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Aita Santuen jauregia	palacio de los papas / palacio papal de Avignon	Palais des papes d'Avignon	Palais des Papes	
Akisgrango Kapera Palatinoa	capilla palatina de Aquisgrán	chapelle palatine d'Aix-la-Chapelle	Palatine Chapel in Aachen	
Al-Aksa meskita	mezquita de Al-Aqsa	mosquée al-Aqsa ou al-Aksa	Al-Aqsa Mosque	
Alhambra	Alhambra	Alhambra	Alhambra	
Andre Maria Nagusiaren basilika	basílica de Santa María la Mayor	basilique Sainte-Marie-Majeure	Basilica of Saint Mary Major / Basilica of Santa Maria Maggiore	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Angkor Wat	Angkor Wat / Angkor Vat	Angkor Vat / Angkor Wat	Angkor Wat	
Apirilaren 25eko zubia ¹	puente 25 de Abril	pont du 25-Avril	25 de Abril Bridge	
Arrokaren kupula	Cúpula de la Roca / Domo de la Roca	dôme du Rocher / coupole du Rocher	Dome of the Rock	
Balmoral gaztelua	castillo de Balmoral	château de Balmoral	Balmoral Castle	
Barberini jauregia	palacio Barberini	palais Barberini	Palazzo Barberini / Barberini Palace	

¹ 1974 baino lehen, Salazar zubia zuen izena.

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Belémgo dorrea	torre de Belém	tour de Belém	Belém Tower	
Belvedere jauregia	palacio (del) Belvedere	palais du Belvédère	Belvedere	
Biblioteka Laurentziana edo Laurendiren Biblioteka	Biblioteca Laureniana	bibliothèque Laurentienne	Laurentian Library	
Big Ben	Big Ben	Big Ben	Big Ben	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Brightongo errege-pabiloia edo Royal Pavilion	Royal Pavilion / Brighton Pavilion / Pabellón Real de Brighton	Royal Pavilion / Brighton Pavilion	Royal Pavilion, / Brighton Pavilion	
Britainiar Museoa ² edo British Museum	Museo Británico / British Museum	British Museum / Musée Britannique	British Museum	
Chrysler eraikina	edificio Chrysler	Chrysler Building / tour Chrysler	Chrysler Building	

² Erakundea eta eraikina batera izendatzen dira. Erakundea letra larriz hasita idazten da.

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Conciergerie	Conciergerie / Palais de la Cité	palais de la Cité / Conciergerie	Conciergerie	
Djennéko Meskita Handia	Gran Mezquita de Djenné	Grande mosquée de Djenné	Great Mosque of Djenné	
Done Petri basilika ³	basílica de San Pedro	basilique Saint-Pierre	Saint Peter's Basilica	
Donemiliaga Behekoa monasterioa ⁴	monasterio de San Millán de Yuso	monastère de San Millán de Yuso	San Millán Yuso Monastery	
Donemiliaga Goikoa monasterioa	monasterio de San Millán de Suso	monastère de San Millán de Suso	San Millán Suso Monastery	
Dorreko zubia	ponte de la Torre	Tower Bridge	Tower Bridge	

³ *San Petri* ere esan liteke, baina ez du tradiziorik.

⁴ Donemiliaga monasterioko patroia San Millan edo Done Millan da. Bi monasterioen multzoa adierazteko, **Donemiliaga** bakarrik erabili ohi da (**Donemiliaga monasterioa**), hala nola *Donemiliagako kartularioa* aipatzen denean.



Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Dukearen jauregia	Palacio Ducal de Venecia	palais des Doges / palais Ducal	Doge's Palace	
Eiffel dorrea	torre Eiffel	tour Eiffel	Eiffel Tower	
El Escorialgo monasterioa (El Escorialgo Done Laurendiren errege-monasterioa)	monasterio de de El Escorial (Real Monasterio de San Lorenzo del Escorial)	Monastère de l'Escurial (Monastère de Saint-Laurent-de-l'Escurial)	Monastery of El Escorial	
Elbarrien jauregia	Los Inválidos	hôtel des Invalides / les Invalides	Les Invalides	


Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Eliseoko jauregia edo Eliseoa	palacio del Elíseo / El Elíseo	palais de l'Élysée / l'Élysée	Élysée Palace	
Eliseoko Zelaietako antzokia	Teatro de los Campos Elíseos	Théâtre des Champs- Élysées	Théâtre des Champs-Élysées	
Errugabeen ospitalea edo Ospedale degli Innocenti	Hospital de los Inocentes / Ospedale degli Innocenti	hôpital des Innocents / Spedale degli Innocenti	Hospital of Innocents / Ospedale degli Innocenti	
Estatu Batuetako kapitolioa edo Kapitolioa ⁵	Capitolio de los Estados Unidos	Capitole des États-Unis	United States Capitol / Capitol Building	
Etxe Zuria	Casa Blanca	Maison- Blanche	White House	

⁵ Izen arrunta da *kapitolio* hitza, *udaletxe* den bezala. Antonomasiaz, Washington dagoen Estatu Batuetako kapitolioa ulertzen da, eta, horregatik, letra larriz hasita idazten da, *Kapitolioa*, aurrelik *Estatu Batuetako* izenlaguna ezarri beharrik gabe.

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Eufrasioren basilika	basílica Eufrásica	basilique euphrasienne	Euphrasian Basilica	
Fagus fabrika	fábrica Fagus	usine Fagus	Fagus Factory	
Familia Santuaren basilika edo Sagrada Família	Sagrada Familia / templo expiatorio de la Sagrada Familia	Sagrada Família	Basílica de la Sagrada Família / Sagrada Familia	
Galeria Nazionala edo National Gallery	Galería Nacional	National Gallery / Galerie nationale	National Gallery	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Gateway Arch edo Gateway arkua	Arco Gateway	Gateway Arch	Gateway Arch	
Gesù eliza edo Gesùren eliza	iglesia del Gesù	église du Gesù	Church of the Gesù	
Golden Gate zubia	Golden Gate	pont du Golden Gate	Golden Gate Bridge	
Gurutze Santu Jerusalemgoaren basilika	basílica de la Santa Cruz de Jerusalén	basilique Sainte-Croix- de-Jérusalem	Basilica of the Holy Cross in Jerusalem	
Hamalau Santuen basilika	basílica de Vierzehnheiligen	basilique des Quatorze- Saints	Basilica of the Fourteen Holy Helpers	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Hampton Court jauregia	palacio de Hampton Court	château de Hampton Court	Hampton Court Palace	
Hilobi Santuaren eliza	iglesia del Santo Sepulcro	L'église du Saint-Sépulcre	Church of the Holy Sepulchre	
Indietako Artxibategi Nagusia	Archivo General de Indias	archive général des Indes	General Archive of the Indies	
Jeronimotarren monasterioa	monasterio de los Jerónimos	monastère des Hiéronymites	Jerónimos Monastery / Hieronymites Monastery	
Kapera Sistinoa edo Sistoren kapera	Capilla Sixtina	chapelle Sixtine	Sistine Chapel	
Kordobako meskita	mezquita-catedral de Córdoba / Gran Mezquita de Córdoba	mosquée-cathédrale de Cordoue / grande mosquée de Cordoue	Mosque-Cathedral of Córdoba / Great Mosque of Córdoba	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Laterango jauregia	Palacio de Letrán	palais du Latran	Lateran Palace	
Lau Ibaien iturria	Fuente de los Cuatro Ríos	fontaine des Quatre-Fleuve	Fontana dei Quattro Fiumi	
Lehoien patioa	Patio de los Leones	cour des Lions	Court of the Lions	
Londresko dorrea	torre de Londres	tour de Londres	Tower of London	
Louvre jauregia	Palacio del Louvre	palais du Louvre	Louvre Palace	
Louvreko kolomadia	columnata del Louvre	colonnade du Louvre	Louvre Colonnade	


Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Luis I.a zubia	puente Luis I	pont Louis Ier	Dom Luís I Bridge / Luís I Bridge	
Maisu Handiaren jauregia	palacio del Gran Maestre	palais magistral / palais du grand maître	Grandmaster's Palace	
Mekako Meskita Handia	Gran Mezquita de la Meca	grande mosquée de la Mecque	Great Mosque of Mecca	
Mendiko Jesus Onaren santutegia	Santuario del Buen Jesús del Monte	sanctuaire du bon Jésus du Mont	Sanctuary of Bom Jesus do Monte	
Meskita Urdina edo Ahmed Sultanaren meskita	mezquita Azul / mezquita del Sultán Ahmed	mosquée bleue / mosquée du sultan Ahmet	Blue Mosque / Sultan Ahmed Mosque	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Midiko kanala	canal del Mediodía / canal de Midi	canal du Midi	Canal du Midi	
Monrealeko katedrala	catedral de Monreale	cathédrale Santa Maria Nuova de Monreale	Cathedral of Monreale	
Mont-Saint-Michelgo abadia	abadía del Monte Saint-Michel	abbaye du Mont-Saint-Michel	Mont-Saint-Michel Abbey	
Natibitatearen basilika	basílica de la Natividad	basilique de la Nativité	Church of the Nativity / Basilica of the Nativity	
Nazio Batuen egoitza	sede de la Organización de las Naciones Unidas / edificio de la ONU	siège des Nations unies	Headquarters of the United Nations	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Notre-Dame du Haut kapera	capilla de Notre Dame du Haut	chapelle Notre-Dame du Haut	Notre-Dame du Haut	
Parisko garaipen-arkua edo Garaipen-arkua	Arco de Triunfo de París	arc de triomphe de l'Étoile / Arc de triomphe	Arc de Triomphe de l'Étoile	
Parisko Notre-Dame katedrala ⁶	catedral de Notre Dame	cathédrale Notre-Dame de Paris	Notre-Dame de Paris	
Pater Noster eliza	iglesia del Pater Noster	église du Pater Noster	Church of the Pater Noster	


⁶ Parisko Andredena Maria ere erabili da inoiz.

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Petronas dorreak edo Petronas Dorre Bikiak	torres Petronas	tours jumelles Petronas	Petronas Towers / Petronas Twin Towers	
Pisako dorrea edo Pisako Dorre Okerra	torre inclinada de Pisa o torre de Pisa	torre de Pisa	Leaning Tower of Pisa / Tower of Pisa	
Pont des Arts edo Arteen zubia	Pont des Arts / Passerelle des Arts	pont des Arts / passerelle des Arts	Pont des Arts / Passerelle des Arts	
Rossioko tren-geltokia	estación (de tren) de Rossio	gare du Rossio	Rossio Railway Station	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Sacré-Cœur basilika edo Montmartreko Jesusen Bihotzaren basilika	basílica del Sagrado Corazón de Montmartre / Sacré-Cœur	basilique du Sacré-Cœur de Montmartre	Basilica of the Sacred Heart of Paris / Sacré- Cœur Basilica / Sacré-Cœur	
Saint-Denis basilika	basílica de Saint-Denis	basilique Saint-Denis	Basilica of Saint-Denis	
Sainte-Chapelle edo Kapera Saindua	Santa Capilla	Sainte- Chapelle / Sainte- Chapelle du Palais	Sainte-Chapelle	
San Apolinar Berriaren basilika	basílica de San Apolinar el Nuevo	basilique Saint- Apollinaire- le-Neuf	Basilica of Sant' Apollinare Nuovo	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
San Carlo alle Quattro Fontane eliza	San Carlo alle Quattro Fontane	église Saint-Charles-aux-Quatre-Fontaines	San Carlo alle Quattro Fontane	
San Domingo Siloskoaren monasterioa	monasterio de Santo Domingo de Silos	abbaye Saint-Dominique de Silos	Santo Domingo de Silos Abbey	
San Joan bataiotegia edo Done Joanes bataiotegia	baptisterio de San Juan	baptistère Saint-Jean	Florence Baptistery / Baptistry of Saint John	
San Joan Laterangoaren basilika edo Done Joanes Laterangoaren basilika (osorik: Laterango Salbatzaile Txit Santuaren eta Joan Bataiatzaile eta Joan Ebanjelari Santuen artxibasilika)	archibasílica de San Juan de Letrán (osorik: archibasílica Papal del Santísimo Salvador del Mundo, y de los Santos Juan Bautista y Juan Evangelista en Letrán)	archibasilique Saint-Jean-de-Latran (osorik: basilique du Très-Saint-Sauveur et des saints Jean-Baptiste et Jean l'Évangéliste)	Saint John Lateran (osorik: Archbasilica of the Most Holy Savior and Saints John the Baptist and John the Evangelist at the Lateran)	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
San Karlos Borromeo eliza edo San Karlos Borromeoren eliza	iglesia de San Carlos Borromeo	église Saint-Charles-Borromée	Karlskirche / St. Charles Church	
San Marko basilika	basílica de San Marcos	basilique Saint-Marc	Saint Mark's Basilica	
San Miniato al Monte basilika	basílica de San Miniato al Monte	basilique San Miniato al Monte	Basilica of San Miniato al Monte	
San Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika edo Done Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika	basílica de San Pablo Extramuros	basilique Saint-Paul-hors-les-Murs	Basilica of Saint Paul Outside the Walls	
San Pietro in Montorio templetea edo Done Petri Montoriokoaren templetea	templete de San Pietro in Montorio	Tempietto de San Pietro in Montorio	Tempietto of San Pietro in Montorio	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
San Vital basilika	basílica de San Vital	basilique Saint-Vital	Basilica of San Vitale	
Sant' Apollinare in Classe basilika edo San Apolinar Classe-koaren basilika	basílica de San Apolinar en Classe	basilique Saint-Apollinaire in Classe	Basilica of Sant' Apollinare in Classe	
Santa Maria del Fiore katedrala edo Florentziako katedrala	catedral de Santa María del Fiore	cathédrale Santa Maria del Fiore	Florence Cathedral	
Santa Maria in Cosmedin basilika edo Andre Maria Cosmedingoaren basilika	basílica de Santa María en Cosmedin	basilique Santa-Maria in Cosmedin	Basilica of Saint Mary in Cosmedin	
Santa Maria in Montesanto basilika edo Andre Maria Montesantokoaren basilika	basílica de Santa María in Montesanto	basilique Santa Maria in Montesanto	Santa Maria in Montesanto	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Santa Maria in Trastevere basilika edo Andre Maria Trasteverekoaren basilika	basílica de Santa María en Trastevere	basilique Sainte-Marie-du-Trastevere	Basilica of Santa Maria in Trastevere	
Santa Sofia	Santa Sofía	Sainte-Sophie	Hagia Sophia	
Schönbrunn jauregia	Palacio de Schönbrunn	château de Schönbrunn	Schönbrunn Palace	
Selimen meskita	mezquita de Selim	mosquée Selimiye	Selimiye Mosque	
Sevillako alkazarra	Real Alcázar de Sevilla	alcazar de Séville	Alcázar of Seville	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Sydneyko opera	Ópera de Sidney / Casa de la Ópera de Sidney	opéra de Sydney	Sydney Opera House	
Taj Mahal	Taj Mahal	Taj Mahal	Taj Mahal	
Tolosako Done Saturdi basilika	basílica de San Sernín / basílica de San Saturnino de Tolosa	basilique Saint-Sernin	Basilica of Saint-Sernin	
Torre del Oro edo Urrezko dorrea	Torre del Oro	Tour de l'Or	Torre del Oro	
Treviko iturria edo Fontana di Trevi	Fontana di Trevi	fontaine de Trevi	Trevi Fountain	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Tritonen iturria	Fuente del Tritón	Fuente del Tritón	Fontana del Tritone	
Txinako Harresi Handia	Gran Muralla China	Grande Muraille	Great Wall of China	
Versaillesko jauregia	Palacio de Versalles	château de Versailles	Palace of Versailles	
Villa Farnese	Villa Farnesio	Villa Farnèse	Villa Farnese	
Villa Savoye	villa Savoye	villa Savoye	Villa Savoye	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Westminsterko abadia edo Westminsterko Done Petri abadia	abadía de Westminster	abbaye de Westminster	Westminster Abbey / Collegiate Church of Saint Peter at Westminster	
Westminsterko jauregia	palacio de Westminster	palais de Westminster	Palace of Westminster	
Würzburg-eko jauregia	Residencia de Wurzburgo	résidence de Wurtzbourg	Würzburg Residence	
Xaharen meskita	mezquita del Sah / mezquita del imán Jomeini	mosquée du Chah	Shah Mosque	

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Zetaren lonja	Lonja de la Seda	loge de la soie	Silk Exchange	
Zisterreko abadia edo Cîteauxko abadia	abadía de Císter	abbaye Notre-Dame de Cîteaux	Cîteaux Abbey	

GAZTELANIA-EUSKARA ZERRENDA

GAZTELANIA	EUSKARA
abadía de Císter	Zisterreko abadia edo Cîteauxko abadia
abadía de Westminster	Westminsterko abadia edo Westminsterko Done Petri abadia
abadía del Monte Saint-Michel	Mont-Saint-Michelgo abadia
Alhambra	Alhambra
Angkor Wat / Angkor Vat	Angkor Wat
archibasílica de San Juan de Letrán (osorik: archibasílica Papal del Santísimo Salvador del Mundo, y de los Santos Juan Bautista y Juan Evangelista en Letrán)	San Joan Laterangoaren basilika edo Done Joanes Laterangoaren basilika (osorik: Laterango Salbatzaile Txit Santuaren eta Joan Bataiatzaile eta Joan Ebanjelari Santuen artxibasilika)
Archivo General de Indias	Indietako Artxibategi Nagusia
Arco de Triunfo de París	Parisko garaipen-arkua edo Garaipen-arkua
Arco Gateway	Gateway Arch edo Gateway arkua
baptisterio de San Juan	San Joan bataiotegia edo Done Joanes bataiotegia
basílica de la Natividad	Natibitatearen basilika
basílica de la Santa Cruz de Jerusalén	Gurutze Santu Jerusalengoaren basilika

GAZTELANIA	EUSKARA
basílica de Saint-Denis	Saint-Denis basilika
basílica de San Apolinar el Nuevo	San Apolinar Berriaren basilika
basílica de San Apolinar en Classe	Sant' Apollinare in Classe basilika edo San Apolinar Classe-koaren basilika
basílica de San Marcos	San Marko basilika
basílica de San Miniato al Monte	San Miniato al Monte basilika
basílica de San Pablo Extramuros	San Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika edo Done Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika
basílica de San Pedro	Done Petri basilika
basílica de San Sernín / basílica de San Saturnino de Tolosa	Tolosako Done Saturdi basilika
basílica de San Vital	San Vital basilika
basílica de Santa María en Cosmedin	Santa Maria in Cosmedin basilika edo Andre Maria Cosmedingoaren basilika
basílica de Santa María en Trastevere	Santa Maria in Trastevere basilika edo Andre Maria Trasteverekoaren basilika
basílica de Santa María in Montesanto	Santa Maria in Montesanto basilika edo Andre Maria Montesantokoaren basilika
basílica de Santa María la Mayor	Andre Maria Nagusiaren basilika
basílica de Vierzehnheiligen	Hamalau Santuen basilika
basílica del Sagrado Corazón de Montmartre / Sacré-Cœur	Sacré-Cœur basilika edo Montmartreko Jesusen Bihotzaren basilika
basílica Eufrásica	Eufrasioren basilika
Biblioteca Laurenciana	Biblioteka Laurentzianoa edo Laurendiren Biblioteka
Big Ben	Big Ben
canal del Mediodía / canal de Midi	Midiko kanala
capilla de Notre Dame du Haut	Notre-Dame du Haut kapera
capilla palatina de Aquisgrán	Akisgrango Kapera Palatinoa
Capilla Sixtina	Kapera Sistinoa edo Sistoren kapera
Capitolio de los Estados Unidos	Estatu Batuetako kapitolioa edo Kapitolioa
Casa Blanca	Etxe Zuria
castillo de Balmoral	Balmoral gaztelua
catedral de Monreale	Monrealeko katedrala
catedral de Notre Dame	Parisko Notre-Dame katedrala
catedral de Santa María del Fiore	Santa Maria del Fiore katedrala edo Florentziako katedrala
columnata del Louvre	Louvreko kolomadria
Conciergerie / Palais de la Cité	Conciergerie
Cúpula de la Roca / Domo de la Roca	Arrokaren kupula
edificio Chrysler	Chrysler eraikina
estación (de tren) de Rossio	Rossioko tren-geltokia
fábrica Fagus	Fagus fabrika
Fontana di Trevi	Treviko iturria edo Fontana di Trevi
Fuente de los Cuatro Ríos	Lau Ibaien iturria
Fuente del Tritón	Tritonen iturria
Galería Nacional	Galeria Nazionala edo National Gallery
Golden Gate	Golden Gate zubia
Gran Mezquita de Djenné	Djennéko Meskita Handia

GAZTELANIA	EUSKARA
Gran Mezquita de la Meca	Mekako Meskita Handia
Gran Muralla China	Txinako Harresi Handia
Hospital de los Inocentes / Ospedale degli Innocenti	Errugabeen ospitalea edo Ospedale degli Innocenti
iglesia de San Carlos Borromeo	San Karlos Borromeo eliza edo San Karlos Borromeoren eliza
iglesia del Gesù	Gesù eliza edo Gesùren eliza
iglesia del Pater Noster	Pater Noster eliza
iglesia del Santo Sepulcro	Hilobi Santuaren eliza
Lonja de la Seda	Zetaren Lonja
Los Inválidos	Elbarrien jauregia
mezquita Azul / mezquita del Sultán Ahmed	Meskita Urdina edo Ahmed Sultanaren meskita
mezquita de Al-Aqsa	Al-Aksa meskita
mezquita de Selim	Selimen meskita
mezquita del Sah / mezquita del imán Jomeini	Xaharen meskita
mezquita-catedral de Córdoba / Gran Mezquita de Córdoba	Kordobako meskita
monasterio de de El Escorial (Real Monasterio de San Lorenzo del Escorial)	El Escorialgo monasterioa (El Escorialgo Done Laurendiren errege-monasterioa)
monasterio de los Jerónimos	Jeronimotarren monasterioa
monasterio de San Millán de Suso	Donemiliaga Goikoa monasterioa
monasterio de San Millán de Yuso	Donemiliaga Behekoa monasterioa
monasterio de Santo Domingo de Silos	San Domingo Siloskoaren monasterioa
Museo Británico / British Museum	Britainiar Museoa edo British Museum
Ópera de Sídney / Casa de la Ópera de Sídney	Sydneyko opera
palacio (del) Belvedere	Belvedere jauregia
palacio Barberini	Barberini jauregia
palacio de Hampton Court	Hampton Court jauregia
Palacio de Letrán	Laterango jauregia
palacio de los papas / palacio papal de Avignon	Aita Santuen jauregia
Palacio de Schönbrunn	Schönbrunn jauregia
Palacio de Versalles	Versaillesko jauregia
palacio de Westminster	Westminsterko jauregia
palacio del Elíseo / El Elíseo	Eliseoko jauregia edo Eliseoa
palacio del Gran Maestre	Maisu Handiaren jauregia
Palacio del Louvre	Louvre jauregia
Palacio Ducal de Venecia	Dukearen jauregia
Patio de los Leones	Lehoien patioa
Pont des Arts / Passerelle des Arts	Pont des Arts edo Arteen zubia
puente 25 de Abril	Apirilaren 25eko zubia
puente de la Torre	Dorreko zubia
puente Luis I	Luis I.a zubia
Real Alcázar de Sevilla	Sevillako alkazarra
Residencia de Wurzburgo	Würzburg-eko jauregia
Royal Pavilion / Brighton Pavilion / Pabellón Real de Brighton	Brightongo errege-pabiloia edo Royal Pavilion
Sagrada Familia / templo expiatorio de la Sagrada Familia	Familia Santuaren basilika edo Sagrada Família
San Carlo alle Quattro Fontane	San Carlo alle Quattro Fontane eliza

GAZTELANIA	EUSKARA
Santa Capilla	Sainte-Chapelle edo Kapera Saindua
Santa Sofía	Santa Sofia
Santuario del Buen Jesús del Monte	Mendiko Jesus Onaren santutegia
sede de la Organización de las Naciones Unidas / edificio de la ONU	Nazio Batuen egoitza
Taj Mahal	Taj Mahal
Teatro de los Campos Elíseos	Eliseoko Zelaietako antzokia
templete de San Pietro in Montorio	San Pietro in Montorio templetea edo Done Petri Montoriokoaren templetea
torre de Belém	Belémgo dorrea
torre de Londres	Londresko dorrea
Torre del Oro	Torre del Oro edo Urrezko dorrea
torre Eiffel	Eiffel dorrea
torre inclinada de Pisa o torre de Pisa	Pisako dorrea edo Pisako Dorre Okerra
torres Petronas	Petronas dorreak edo Petronas Dorre Bikiak
Villa Farnesio	Villa Farnese
villa Savoye	Villa Savoye

FRANTSESA-EUSKARA ZERRENDA

FRANTSESA	EUSKARA
abbaye de Westminster	Westminsterko abadia edo Westminsterko Done Petri abadia
abbaye du Mont-Saint-Michel	Mont-Saint-Michelgo abadia
abbaye Notre-Dame de Cîteaux	Zisterreko abadia edo Cîteauxko abadia
abbaye Saint-Dominique de Silos	San Domingo Siloskoaren monasterioa
alcazar de Séville	Sevillako alkazarra
Alhambra	Alhambra
Angkor Vat / Angkor Wat	Angkor Wat
arc de triomphe de l'Étoile / Arc de triomphe	Parisko garaipen-arkua edo Garaipen-arkua
archibasilique Saint-Jean-de-Latran (osorik: basilique du Très-Saint-Sauveur et des saints Jean-Baptiste et Jean l'Evangéliste)	San Joan Laterangoaren basilika edo Done Joanes Laterangoaren basilika (osorik: Laterango Salbatzaile Txit Santuaren eta Joan Bataiatzaile eta Joan Ebanjelari Santuen artxibasilika)
archive général des Indes	Indietako Artxibategi Nagusia
baptistère Saint-Jean	San Joan bataiotegia edo Done Joanes bataiotegia
basilique de la Nativité	Natibitatearen basilika
basilique des Quatorze-Saints	Hamalau Santuen basilika
basilique du Sacré-Cœur de Montmartre	Sacré-Cœur basilika edo Montmartreko Jesusen Bihotzaren basilika
basilique euphrasienne	Eufrasioren basilika
basilique Saint-Apollinaire in Classe	Sant' Apollinare in Classe basilika edo San Apolinar Classe-koaren basilika
basilique Saint-Apollinaire-le-Neuf	San Apolinar Berriaren basilika
basilique Saint-Denis	Saint-Denis basilika
basilique Sainte-Croix-de-Jérusalem	Gurutze Santu Jerusalemgoaren basilika

FRANTSESA	EUSKARA
basilique Sainte-Marie-du-Trastevere	Santa Maria in Trastevere basilika edo Andre Maria Trasteverekoaren basilika
basilique Sainte-Marie-Majeure	Andre Maria Nagusiaren basilika
basilique Saint-Marc	San Marko basilika
basilique Saint-Paul-hors-les-Murs	San Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika edo Done Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika
basilique Saint-Pierre	Done Petri basilika
basilique Saint-Sernin	Tolosako Done Saturdi basilika
basilique Saint-Vital	San Vital basilika
basilique San Miniato al Monte	San Miniato al Monte basilika
basilique Santa Maria in Montesanto	Santa Maria in Montesanto basilika edo Andre Maria Montesantokoaren basilika
basilique Santa-Maria in Cosmedin	Santa Maria in Cosmedin basilika edo Andre Maria Cosmedingoaren basilika
bibliothèque Laurentienne	Biblioteka Laurentzianoa edo Laurendiren Biblioteka
Big Ben	Big Ben
British Museum / Musée Britannique	Britainiar Museoa edo British Museum
canal du Midi	Midiko kanala
Capitole des États-Unis	Estatu Batuetako kapitolioa edo Kapitolioa
cathédrale Notre-Dame de Paris	Parisko Notre-Dame katedrala
cathédrale Santa Maria del Fiore	Santa Maria del Fiore katedrala edo Florentziako katedrala
cathédrale Santa Maria Nuova de Monreale	Monrealeko katedrala
chapelle Notre-Dame du Haut	Notre-Dame du Haut kapera
chapelle palatine d'Aix-la-Chapelle	Akisgrango Kapera Palatinoa
chapelle Sixtine	Kapera Sistinoa edo Sistoren kapera
château de Balmoral	Balmoral gaztelua
château de Hampton Court	Hampton Court jauregia
château de Schönbrunn	Schönbrunn jauregia
château de Versailles	Versaillesko jauregia
Chrysler Building / tour Chrysler	Chrysler eraikina
colonnade du Louvre	Louvreko kolomadria
cour des Lions	Lehoien patioa
dôme du Rocher / coupole du Rocher	Arrokaren kupula
église du Gesù	Gesù eliza edo Gesùren eliza
église du Pater Noster	Pater Noster eliza
église Saint-Charles-aux-Quatre-Fontaines	San Carlo alle Quattro Fontane eliza
église Saint-Charles-Borromée	San Karlos Borromeo eliza edo San Karlos Borromeoren eliza
fontaine de Trevi	Treviko iturria edo Fontana di Trevi
fontaine des Quatre-Fleuve	Lau Ibaien iturria
Fuente del Tritón	Tritonen iturria
gare du Rossio	Rossioko tren-geltokia
Gateway Arch	Gateway Arch edo Gateway arkua
Grande mosquée de Djenné	Djennéko Meskita Handia
grande mosquée de la Mecque	Mekako Meskita Handia
Grande Muraille	Txinako Harresi Handia
hôpital des Innocents / Spedale degli Innocenti	Errugabeen ospitalea edo Ospedale degli Innocenti

FRANTSESA	EUSKARA
hôtel des Invalides / les Invalides	Elbarrien jauregia
L'église du Saint-Sépulcre	Hilobi Santuaren eliza
loge de la soie	Zetaren lonja
Maison-Blanche	Etxe Zuria
Monastère de l'Escurial (Monastère de Saint-Laurent-de-l'Escurial)	El Escorialgo monasterioa (El Escorialgo Done Laurendiren errege-monasterioa)
monastère de San Millán de Suso	Donemiliaga Goikoa monasterioa
monastère de San Millán de Yuso	Donemiliaga Behekoa monasterioa
monastère des Hiéronymites	Jeronimotarren monasterioa
mosquée al-Aqsa ou al-Aksa	Al-Aksa meskita
mosquée bleue / mosquée du sultan Ahmet	Meskita Urdina edo Ahmed Sultanaren meskita
mosquée du Chah	Xaharen meskita
mosquée Selimiye	Selimen meskita
mosquée-cathédrale de Cordoue / grande mosquée de Cordoue	Kordobako meskita
National Gallery / Galerie nationale	Galeria Nazionala edo National Gallery
opéra de Sydney	Sydneyko opera
palais Barberini	Barberini jauregia
palais de la Cité / Conciergerie	Conciergerie
palais de l'Élysée / l'Élysée	Eliseoko jauregia edo Eliseoa
palais de Westminster	Westminsterko jauregia
palais des Doges / palais Ducal	Dukearen jauregia
Palais des papes d'Avignon	Aita Santuen jauregia
palais du Belvédère	Belvedere jauregia
palais du Latran	Laterango jauregia
palais du Louvre	Louvre jauregia
palais magistral / palais du grand maître	Maisu Handiaren jauregia
pont des Arts / passerelle des Arts	Pont des Arts edo Arteen zubia
pont du 25-Avril	Apirlaren 25eko zubia
pont du Golden Gate	Golden Gate zubia
pont Louis Ier	Luis I.a zubia
résidence de Wurtzbourg	Würzburg-eko jauregia
Royal Pavilion / Brighton Pavilion	Brightongo errege-pabiloia edo Royal Pavilion
Sagrada Família	Familia Santuaren basilika edo Sagrada Família
Sainte-Chapelle / Sainte-Chapelle du Palais	Sainte-Chapelle edo Kapera Saindua
Sainte-Sophie	Santa Sofia
sanctuaire du bon Jésus du Mont	Mendiko Jesus Onaren santutegia
siège des Nations unies	Nazio Batuen egoitza
Taj Mahal	Taj Mahal
Tempietto de San Pietro in Montorio	San Pietro in Montorio templetea edo Done Petri Montoriokoaren templetea
Théâtre des Champs-Élysées	Eliseoko Zelaietako antzokia
torre de Pisa	Pisako dorrea edo Pisako Dorre Okerra
tour de Belém	Belémgo dorrea
tour de Londres	Londresko dorrea
Tour de l'Or	Torre del Oro edo Urrezko dorrea
tour Eiffel	Eiffel dorrea
tours jumelles Petronas	Petronas dorreak edo Petronas Dorre Bikiak

FRANTSESA	EUSKARA
Tower Bridge	Dorreko zubia
usine Fagus	Fagus fabrika
Villa Farnèse	Villa Farnese
villa Savoye	Villa Savoye

INGELESA-EUSKARA ZERRENDA

INGELESA	EUSKARA
Palais des Papes	Aita Santuen jauregia
Palatine Chapel in Aachen	Akisgrango Kapera Palatinoa
Al-Aqsa Mosque	Al-Aksa meskita
Alhambra	Alhambra
Basilica of Saint Mary Major / Basilica of Santa Maria Maggiore	Andre Maria Nagusiaren basilika
Angkor Wat	Angkor Wat
25 de Abril Bridge	Apirilaren 25eko zubia
Dome of the Rock	Arrokaren kupula
Balmoral Castle	Balmoral gaztelua
Palazzo Barberini / Barberini Palace	Barberini jauregia
Belém Tower	Belémgo dorrea
Belvedere	Belvedere jauregia
Laurentian Library	Biblioteka Laurentzianoa edo Laurendiren Biblioteka
Big Ben	Big Ben
Royal Pavilion, / Brighton Pavilion	Brightongo errege-pabiloia edo Royal Pavilion
British Museum	Britainiar Museoa edo British Museum
Chrysler Building	Chrysler eraikina
Conciergerie	Conciergerie
Great Mosque of Djenné	Djennéko Meskita Handia
Saint Peter's Basilica	Done Petri basilika
San Millán Yuso Monastery	Donemiliaga Behekoa monasterioa
San Millán Suso Monastery	Donemiliaga Goikoa monasterioa
Tower Bridge	Dorreko zubia
Doge's Palace	Dukearen jauregia
Eiffel Tower	Eiffel dorrea
Monastery of El Escorial	El Escorialgo monasterioa (El Escorialgo Done Laurendiren errege-monasterioa)
Les Invalides	Elbarrien jauregia
Élysée Palace	Eliseoko jauregia edo Eliseoa
Théâtre des Champs-Élysées	Eliseoko Zelaietako antzokia
Hospital of Innocents / Ospedale degli Innocenti	Errugabeen ospitalea edo Ospedale degli Innocenti
United States Capitol / Capitol Building	Estatu Batuetako kapitolioa edo Kapitolioa
White House	Etxe Zuria
Euphrasian Basilica	Eufrasioren basilika
Fagus Factory	Fagus fabrika
Basílica de la Sagrada Família / Sagrada Familia	Familia Santuaren basilika edo Sagrada Família
National Gallery	Galeria Nazionala edo National Gallery

INGELESA	EUSKARA
Gateway Arch	Gateway Arch edo Gateway arkua
Church of the Gesù	Gesù eliza edo Gesùren eliza
Golden Gate Bridge	Golden Gate zubia
Basilica of the Holy Cross in Jerusalem	Gurutze Santu Jerusalengoaren basilika
Basilica of the Fourteen Holy Helpers	Hamalau Santuen basilika
Hampton Court Palace	Hampton Court jauregia
Church of the Holy Sepulchre	Hilobi Santuaren eliza
General Archive of the Indies	Indietako Artxibategi Nagusia
Jerónimos Monastery / Hieronymites Monastery	Jeronimotarren monasterioa
Sistine Chapel	Kapera Sistinoa edo Sistoren kapera
Mosque–Cathedral of Córdoba / Great Mosque of Córdoba	Kordobako meskita
Lateran Palace	Laterango jauregia
Fontana dei Quattro Fiumi	Lau Ibaien iturria
Court of the Lions	Lehoien patioa
Tower of London	Londresko dorrea
Louvre Palace	Louvre jauregia
Louvre Colonnade	Louvreko kolomadria
Dom Luís I Bridge / Luís I Bridge	Luis I.a zubia
Grandmaster's Palace	Maisu Handiaren jauregia
Great Mosque of Mecca	Mekako Meskita Handia
Sanctuary of Bom Jesus do Monte	Mendiko Jesus Onaren santutegia
Blue Mosque / Sultan Ahmed Mosque	Meskita Urdina edo Ahmed Sultanaren meskita
Canal du Midi	Midiko kanala
Cathedral of Monreale	Monrealeko katedrala
Mont-Saint-Michel Abbey	Mont-Saint-Michelgo abadia
Church of the Nativity / Basilica of the Nativity	Natibitatearen basilika
Headquarters of the United Nations	Nazio Batuen egoitza
Notre-Dame du Haut	Notre-Dame du Haut kapera
Arc de Triomphe de l'Étoile	Parisko garaipen-arkua edo Garaipen-arkua
Notre-Dame de Paris	Parisko Notre-Dame katedrala
Church of the Pater Noster	Pater Noster eliza
Petronas Towers / Petronas Twin Towers	Petronas dorreak edo Petronas Dorre Bikiak
Leaning Tower of Pisa / Tower of Pisa	Pisako dorrea edo Pisako Dorre Okerra
Pont des Arts / Passerelle des Arts	Pont des Arts edo Arteen zubia
Rossio Railway Station	Rossioko tren-geltokia
Basilica of the Sacred Heart of Paris / Sacré-Cœur Basilica / Sacré-Cœur	Sacré-Cœur basilika edo Montmartreko Jesusen Bihotzaren basilika
Basilica of Saint-Denis	Saint-Denis basilika
Sainte-Chapelle	Sainte-Chapelle edo Kapera Saindua
Basilica of Sant' Apollinare Nuovo	San Apolinar Berriaren basilika
San Carlo alle Quattro Fontane	San Carlo alle Quattro Fontane eliza
Santo Domingo de Silos Abbey	San Domingo Siloskoaren monasterioa
Florence Baptistery / Baptistry of Saint John	San Joan bataiotegia edo Done Joanes bataiotegia
Saint John Lateran (osorik: Archbasilica of the Most Holy Savior and Saints John the Baptist and John the Evangelist at the Lateran)	San Joan Laterangoaren basilika edo Done Joanes Laterangoaren basilika (osorik: Laterango Salbatzaile Txit Santuaren eta Joan Bataiatzaile eta Joan Ebanjelari Santuen artxibasilika)

INGELESA	EUSKARA
Karlskirche / St. Charles Church	San Karlos Borromeo eliza edo San Karlos Borromeoren eliza
Saint Mark's Basilica	San Marko basilika
Basilica of San Miniato al Monte	San Miniato al Monte basilika
Basilica of Saint Paul Outside the Walls	San Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika edo Done Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika
Tempietto of San Pietro in Montorio	San Pietro in Montorio tenpletea edo Done Petri Montoriokoaren tenpletea
Basilica of San Vitale	San Vital basilika
Basilica of Sant' Apollinare in Classe	Sant' Apollinare in Classe basilika edo San Apolinar Classe-koaren basilika
Florence Cathedral	Santa Maria del Fiore katedrala edo Florentziako katedrala
Basilica of Saint Mary in Cosmedin	Santa Maria in Cosmedin basilika edo Andre Maria Cosmedingoaren basilika
Santa Maria in Montesanto	Santa Maria in Montesanto basilika edo Andre Maria Montesantokoaren basilika
Basilica of Santa Maria in Trastevere	Santa Maria in Trastevere basilika edo Andre Maria Trasteverekoaren basilika
Hagia Sophia	Santa Sofia
Schönbrunn Palace	Schönbrunn jauregia
Selimiye Mosque	Selimen meskita
Alcázar of Seville	Sevillako alkazarra
Sydney Opera House	Sydneyko opera
Taj Mahal	Taj Mahal
Basilica of Saint-Sernin	Tolosako Done Saturdi basilika
Torre del Oro	Torre del Oro edo Urrezko dorrea
Trevi Fountain	Treviko iturria edo Fontana di Trevi
Fontana del Tritone	Tritonen iturria
Great Wall of China	Txinako Harresi Handia
Palace of Versailles	Versaillesko jauregia
Villa Farnese	Villa Farnese
Villa Savoye	Villa Savoye
Westminster Abbey / Collegiate Church of Saint Peter at Westminster	Westminsterko abadia edo Westminsterko Done Petri abadia
Palace of Westminster	Westminsterko jauregia
Würzburg Residence	Würzburg-eko jauregia
Shah Mosque	Xaharen meskita
Silk Exchange	Zetaren lonja
Cîteaux Abbey	Zisterreko abadia edo Cîteauxko abadia